

SARRERA

Gu, Beasain BHIko lau ikasle gara eta enpresa bat martxan jartzea pentsatu dugu. Gure enpresaren izena "JakiGo" da zehazki eta gure helburu nagusia herriko jatetxe eta tabernei laguntzea da, pandemiaren ondorioz kalte handiak jasan baitituzte azken hilabeteetan.

Horretarako, tabernetan prestatutako janaria herritarren artean banatuko dugu, beraiek mugitzerik behar izan gabe. Hain zuzen ere, gure enpresaren izenak, egingo dugunarekin lotura handia du. Jaki-rekin janariari egiten diogu erreferentzia eta Go-rekin jaki edo janari horiek banatzeari, alegia.

Hori gutxi balitz, bizikleta erabiliko dugu garraio gisa, modu honetan, ingurumena ere zaindu nahiz kutsadura saihesten baitugu.